

Tenerifeko hondoratzeak.

Tenerifeko hegoaldean, ispilu den itsaso horren bi aldeetan, Malpaisen gaude, lurrean sortu eta itsaspera isuri ziren laba solidifikatuzko ibaien paisaia.

Gauza bera egingo du elurrak, uraren zikloaren beste muturrean, hemen, Teideko gailurrean, suaren bila aurkitu gabe.

Baina Malpaiseko gandu eta ertz zorrotzak tranpa hilgarriak izan daitezke Tenerife uhartearen hegoaldean dabilzan itsasontzientzat.

El Condesito tranpa horretan erori zen, 1972ko urtarrilean nabigatzen zuen batzuek diotenez, edo 1971 bukaera aldera beste batzuen arabera, zementuz zamaturik.

Ekaitz bat izan zitekeen, aipatzen dute batzuek, edo alkohol gehiegi ontzian, iradoki bestee; agian gauza biak.

Dena dela, eskifaikide guztiak onik atera ziren, baina ontzia eta bere zama itsas hondoan geratu ziren betirako, gainazaletik 20 bat metrotara, beste zaintzaile batzuen eskuetan orain.

Zenbait gainazal naturalek biztanlerik gabe dirauten bitartean, Condesitoren burdin erdoilduetan ehunaka espezie epifitok habitata aurkitzen dute. Baina sare trofiko korapilatsuan, organismoak ez dira isolaturik gelditzen, elikagai eta babes bilatzen duten beste batzuekin harremanetan baizik, dortoka berde hau bezala.

Ez da hondoratutako kroskoen bisitari bakarra, eta bizitza ez da beti hain barea.

Arrak grisak izan arren, Kanarietan "viejas" deitzen dituzten papagai arrainaren emeen kolore biziek ez diete kroskoaren burdin artean nabarmendu gabe gertatzen uzten.

Damisela, arrain zurrungari, papagai arrain eta durdoek elkarbanatzen duten espazioa.

Eta beste askok.

Itxuraz lasaitasunez partekatzen dute ezusteko habitat hau, baina lehenago edo beranduago beraien horzkadak jaurtiko dituzte. Horrela egingo dute kraba inperialek ere.

Eta tramanek, beraien hortz birrintzaile indartsuekin.

Denak begira daude, bi papagai arrain nola borrokatzen diren lurraldeagatik. Aho berdina, hortz soldatuek hegazti baten mokoa dirudite; harrapakinak irensteko balio du, baina baita taldeko hierarkian postua usurpatu nahi duen kide lotsagabe bat ikaratzeko ere.

Ontziko burdinen arteko espazio estuak partekatzen dituen beste arrain bat globo arraina da.

Tronpeta arrainak ere hutsarteak korritzen ditu eta kroskoaren argi eta itzala esploratu.

Arrain guzti hauek jada berria ez den espazio batean dabilta noraezean.

Inoiz objektu arrotz izan bazen, orain jada itsaspeko paisaiaren parte da. Minerala azken finean, harea eta harkaitzak bezala. Alga eta animaliak haz daitezkeen gainazal bat. Materia eta energia maila batetik hurrengora pasatuz doazen piramide mailakatuan pauso bat gehiago.

Piramide horren maila gorenetan, itsas sugea erne dago inoiz makina, trenkada, abortza edo idi begi izan ziren hutsarte hauetan gertatzen denari so. Ur armiarna ere adi dago.

Bitartean, dortokak, bere astuntasunean arin, bidea zabaltzen du kastainola eta muxar artean.

Inoiz itsasontzi izandakoaren gainean.